# AUTOBUS ETA AUTOKARRETARAKO MURRIZKETA

## REDUCCIÓN AUTOBUSES Y AUTOCARES

## Akordioa – Acuerdo

## KLAUSULAK

### 1. AKORDIOAREN XEDEA

Akordio honen xedea da, batetik, Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia – Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SAren (aurrerantzean, BIDEGI SA) eta, bestetik, eta autobus eta autokarrei aplikatu beharreko murrizketaren onuradun izateko interesa duen erakundearen arteko baldintzak erregulatzea. Murrizketa hori Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontu Orokorren Foru Arauak onartua da.

### 2. AUTOBUSA EDO AUTOKARRA

Xedapen gehigarri honetan xedatutakoaren ondorioetarako, autobus edo autokar gisa ulertzen da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999/62/EE Zuzentarauak 2.1 artikuluaren 20. paragrafoan jasotako definizioaren arabera, ibilgailu astun bat, baldin eta ibilgailuaren baimendutako gehieneko masa 3,5 tona baino handiagoa bada eta zortzi bidaiari baino gehiago garraiatzeko bada, gidariaz gain.

### 3. MURRIZKETA LORTZEKO ESKAKIZUNAK

Autobus eta autokarretarako murrizketa (aurrerantzean, murrizketa) lortzeko aukera izango dute goian zehaztutako enpresa/ibilgailu-titular guztiek, baldin eta murrizketaren onuradun den ibilgailu bakoitzeko honako eskakizun hauek betetzen badituzte:

- Bidegiren web-orrian (www.bidegi.eus) prestatutako formularioa betetzea edo, Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuan (aurrerantzean, BAZ) modu presentzialean egiten diren eskabideetarako, horretarako prestatutako formularioa betetzea.
- Murrizketa honen xede diren Gipuzkoako Lurralde Historikoko ordainpeko bide-azpiegituretako batetik zirkulatzea.
- TAG-ViaT identifikatzeko eta ordaintzeko gailu telematiko bat izatea, eta haren bidez aurreko paragrafoan aipatzen diren ibilbideak ordaintzea.
- Bidegirekin zorrik ez izatea.
- Honako dokumentu hauek aurkeztea:
  - Indarrean dagoen zirkulazio-baimena edo agiri baliokidea.
  - Ibilgailuaren fitxa teknikoa, haren erabilera zehaztuko duena.
  - TAG-ViaT ordaintzeko gailu telematiko baten titulartasunaren egiaztagiria, ibilgailuaren matrikularekin lotzeko.
  - Gailuaren titularraren izenean egongo den banku-kontu baten titulartasunaren egiaztagiria, murrizketari dagokion zenbatekoa ordaintzeko.
- BIDEGI SAri emandako informazio guztia eguneratuta edukitzeaa.

### 4. ESKABIDEA ONARTZEA / UKATZEA

Eskabidea aurkeztu ondoren, Bidegik egiaztatuko du aurkeztutako dokumentazioak bete egiten duela akordio honen 3. artikuluan eskatutakoa.
Baiezkoa kasuan, eskabide zuzen aurkeztu eta hurrengo hilabeteko lehen egun naturaletik aurrera aplikatuko zaie murrizketa egindako iraganbideei/ibilbideei.
Aurkeztutako dokumentazioan errore edo akatsen bat aurkituz gero, eskabidean aurkeztutako posta elektronikoan (modu lehenetsian eta arintasunagatik) jakinaraziko da horren berri, eta beste eskabide bat egiteko aukera emango da.

### 5. APLIKATZEKOA DEN MURRIZKETA

Kanonaren zenbatekoa % 50 murriztuko da pertsonak garraiatzeko I kategoriako ibilgailu astunentzat eta II kategoriako ibilgailu astunentzat Gipuzkoako Lurralde Historikoan indarrean dauden tarifen gainean.
Murrizketa hori bateragarria da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2023rako Aurrekontu Orokorren Foru Arauan erregulatzen diren erabilera-maiztasunaren ondoriozko deskontuekin, eta deskontu horien aurretik aplikatuko da.

### 6. MURRIZKETA ORDAINTZEA

Murrizketa erakunde interesdunak emandako banku-kontuan ordainduko da, hurrengo hilabetearen bigarren hamabostaldian. Erakunde interesdunaren erantzukizun osoa izango da ordainketa onartuko duen kontu korronte bat behar bezala ematea, baita edozein aldaketaren berri ematea ere horretarako ezarritako bitartekoen bidez.
2023ko urriaren 1a baino lehenagoko murrizketak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera aplikatuko dira (aurkeztutako eskabidea onartu ondoren), baina ordainketa urrian egingo da atzeraeraginez.

### 7. EZ-BETETZEAK

Eskakizunak murrizketaren aplikazio-aldi osoan bete beharko dira.
Matrikulari lotutakoaz bestelako TAG-ViaT ordaintzeko gailu telematiko bat erabiltzen den edozein igarobidek/ibilbidek ez du murrizketarik izango.
Ordaintzeko gailu telematiko bat erabiltzen bada lotuta dagoen ibilgailua ez den beste ibilgailu batean, ezarritako baldintzak ez direla bete ulertuko da.
Foru Arauan eta/edo akordio honetan erregulatutako eskakizunak ez betetzeak berekin ekarriko du murrizketarako eskubidea galtzea, eta, hori dela eta, ez-

## CLÁUSULAS

### 1. OBJETO DEL ACUERDO

El objeto del presente acuerdo es regular las condiciones entre Bidegi Gipuzkoako Azpieguren Agentzia – Agencia Guipuzcoana de Infraestructuras SA (en adelante, BIDEGI SA) y la entidad interesada en ser beneficiaria en la reducción aplicable a autobuses y autocares, aprobada por la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2023.

### 2. AUTOBÚS O AUTOCAR

Se entiende por autobús o autocar, de acuerdo con la definición contenida en el apartado 20 del artículo 2.1 de la Directiva 199/62CE del Parlamento Europeo y del Consejo de º17 de junio de 1999, un vehículo pesado cuya masa máxima autorizada sea superior a 3.5 toneladas destinado al transporte de más de ocho pasajeros, además del conductor.

### 3. REQUISITOS PARA ACCEDER A LA REDUCCIÓN

Podrán acceder a la Reducción de Autobuses y Autocares (en adelante reducción), todas las empresas/titulares de vehículos arriba definidos y que cumplan y rellenen los siguientes requisitos por cada vehículo beneficiario de reducción;

- Rellenar el formulario habilitado en la página web de Bidegi www.bidegi.eus o para las solicitudes que se realicen de manera presencial en el Servicio de Atención al Cliente (en adelante SAC), rellenar el formulario habilitado para ello.
- Circular por alguna de las infraestructuras viarias sometidas a cobro objeto de la presente reducción, del Territorio Histórico de Gipuzkoa.
- Disponer de un dispositivo telemático de identificación y pago TAG-ViaT y abonar a través de él los trayectos a que se refiere el párrafo anterior.
- No tener deudas con Bidegi.
- Aportar la siguiente documentación;
  - Permiso de circulación en vigor o documento equivalente.
  - Ficha técnica del vehículo en la que se defina el uso de este.
  - Documentación acreditativa de la titularidad de un dispositivo telemático de pago TAG-ViaT para vincularlo a la matrícula del vehículo.
  - Documentación acreditativa de la titularidad de una cuenta bancaria a nombre de la persona titular del dispositivo, a los efectos de abonar el importe correspondiente a la reducción.
- Mantener toda la información facilitada a BIDEGI SA actualizada.

### 4. ACEPTACIÓN / DENEGACIÓN SOLICITUD

Presentada la solicitud Bidegi realizará la comprobación de que la documentación entregada cumple con lo requerido en el artículo 3 del presente acuerdo.
En caso afirmativo se aplicará la reducción a los tránsitos/trayectos realizados a partir del primer día natural del siguiente mes de presentar la solicitud correcta.
En caso de encontrarse algún error o deficiencia en la documentación presentada se informará, por defecto y por agilidad, al correo electrónico aportado en la solicitud las incidencias encontradas, dando la opción para realizar una nueva solicitud.

### 5. REDUCCIÓN APLICABLE

La cuantía del canon se reducirá en un 50% respecto a las tarifas vigentes en el Territorio Histórico de Gipuzkoa para los vehículos pesados I y pesados II de transporte de personas.
Esta reducción es compatible con los descuentos por frecuencia de uso regulados en Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2023 y se aplicará con carácter previo a dichos descuentos.

### 6. ABONO DE LA REDUCCIÓN

El abono de la reducción se realizará mediante un abono a la cuenta bancaria facilitada por la entidad interesada la segunda quincena del mes vencido siguiente. Será plena responsabilidad de la entidad interesada facilitar correctamente una cuenta corriente que admita abono, así como comunicar cualquier cambio por los medios establecidos al efecto.
Para las antes anteriores al 1 de octubre de 2023, serán aplicables desde el 1 de enero de 2023 (previa aceptación de la solicitud presentada), pero el abono se hará de manera retroactiva en el mes de octubre

### 7. INCUMPLIMIENTOS

El cumplimiento de los requisitos deberá mantenerse durante todo el periodo de aplicación de la reducción.
Cualquier tránsito/trayecto en el que se utilice un dispositivo telemático de pago TAG-ViaT distinto al vinculado a la matrícula no disfrutará de su reducción.
El uso de un dispositivo telemático de pago en vehículo diferente a aquel al que esté vinculado se considerará incumplimiento de los requisitos establecidos.
El incumplimiento de los requisitos regulados en la Norma Foral y/o en el presente acuerdo será motivo de pérdida del derecho a la reducción y dará lugar a la

betetze aldian sortu diren eta oraindik aplikatu ez diren murrizketa guztiak baliogabetuko dira.

**8. AKORDIOAREN IRAUPENA ETA SUNTSIARAZPENA**

Akordio honek iraupen mugagabea izango du. Honako arrazoi hauetakoren batengatik eman ahal izango da amaitutzat:

- Erakunde interesdunak akordioa ez betetzea.
- Erakunde interesdunak berariaz eskatuta. Horretarako, idazki bat bidali beharko du, eta horretan adierazi beharko du zein ibilgailuri eman nahi dion baja eta zein datatik aurrera ez duen nahi tarifa-murrizketa aplika diezaioten.

**9. FAKTURAZIOA**

Erakunde interesdunak berariazko baimena ematen du BIDEGI SAk, www.bidegi.eus bere web-orriaren bidez, haren eskura jar ditzan haren banku-kontuan "autobus eta autokarretarako murrizketa" kontzeptupean egindako ORDAINKETAri dagozkion fakturak

**10. BALDINTZAK ALDATZEA**

BIDEGI SAk akordio honetan jasotako baldintza hauek aldatu ahal izango ditu, aplikatu baino hilabete lehenago erakunde interesdunari jakinaraziz gero. Jakinarazpen horretatik kanpo geratzen dira murrizketa eta deskontuen planari buruzko aldaketak, baita haiek aplikatzeko irizpideei buruzkoak ere.

**12. DATU PERTSONALAK BABESTEA**

Eduki informatiboa: Zure datu pertsonalak BIDEGIk tratatzen ditu, Gipuzkoako Lurralde Historikoan murrizketa honen xede diren kobrantzapekoak diren errepideetako autobus eta autokarren tarifa-murrizketa kalkulatzeko arduradun gisa, bai eta murrizketa horri lotutako gailuaren erabileratik lortutako informazio pertsonala kudeatzeko, gailuaren erabilera-profilak egiteko eta zerbitzu horri lotutako zerbitzuen kudeaketa, aldaketa edo aldaketei buruzko komunikazioak bidaltzeko ere. Era berean, administrazio elektronikoaren zerbitzuak emateko beharrezkoak diren datuak eta BIDEGIk dituenak, tratamendu hau kudeatzeko erabiliko dira. Datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna: BIDEGI Gipuzkoako Azpiegituren Agentziak-Agencia Gipuzcoana de Infraestructuras, A2078302 CIF-a eta egoitza Asti Auzoko, 631A- 20800 - (Zarautz) – Guipuzkoan dauka. Eskatutako datu pertsonalak eta zerbitzuaren ondorioz garatzen direnak tratatzen ditu. Datuak erabiltzeko legitimazioa: Datuen tratamendua egiteko legitimazioa edo lege-oinarria eskatzaileak sinatutako kontratua, interes publikoa (abenduaren 26ko 17/1990 Foru Arauan eta Bidegiren eraketari buruzko Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretuan gauzatua), Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.b) eta 6.1.e) artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, eta akordio horretan murrizketarekin lotutako gailuaren erabilera-profilak egiteko eskatzen den baimena (Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.a) artikuluan xedatutakoari jarraikiz) dira. Administrazio elektronikoko zerbitzuei buruzko datuak tratatzeko lege-oinarria abenduaren 26ko 17/1990 Foru Araua eta Bidegiren eraketari buruzko Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 16ko 43/2002 Foru Dekretua dira (Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeari dagokionez), Datuak Babesteko Europako Erregelamenduaren 6.1.c) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Murrizketarekin lotutako informazioa bidaltzeko oinarri juridikoa Gardentasunari, Informazio publikoa eskuratzeko bideari eta Gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 7.artikuluan eta Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorraren 6.1.c) artikuluan xedatutakoaren arabera gauzatzen da. Datuen komunikazioa: BIDEGIk datuak jakinarazi ahal izango dizkie beren lurraldeetan eduki handiko autobideak kudeatzen dituzten INTERBIAK SA, ARABAKO BIDEAK-VIAS DE ALAVA SA entitate publikoei, erreklamazioei erantzun ahal izateko. Halaber, datu pertsonalak jakinaraziko dira arau batek eskatzen duenean eta zerbitzuari kanpoko hornitzaileen bidez euskarria eman behar zaionean. Datu pertsonalen kudeaketak ez du datuen nazioarteko transferentziak egitea suposatzen. Datuen kontserbazioa: Datu pertsonalak zerbitzua eman bitartean gordeko dira. Ondoren, blokeatu egingo dira, baimendutako langileentzako sarbide mugatuarekin. Egoera honetan egongo dira zerbitzua ematearen ondoriozko ekintzen edo zerga-legeria aplikagarriak eskatutakoen preskripzio edo iraungitzearen aldietan. Helburu estatistikoekin edo erabiltzaileentzako zerbitzuaren kalitatea hobetzeko ikerketak egiteko beharrezkoak diren datuak, informazio pertsonala anonimo bihurtuz egingo dira. Datu pertsonalen tratamenduarekin lotutako eskubideak: pertsonak eskubidea dauka BIDEGI bere datu pertsonalak tratatzen ari den edo ez erakutsiko duen informazioa jasotzeko. Modu horretan, interesdunek haien datuak irispidean izateko, datu zehaztugabeak zuzentzeko edo ezerezteko eskubidea izango dute, besteak beste datuak beharrezkoak ez direnean jaso ziren helbururako. Egoera zehatzetan, interesdunek tratamendua mugatzea eskatu ahal izango dute, kasu horretan, erreklamazioak egin edo defendatzeko soilik kontserbatuko ditugu. Era berean, egoera partikularrarekin lotutako arrazoien ondorioz, interesdunek haien datuen tratamenduaren aurka egin dezakete. Kasu horretan, Bidegik datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta legezko eta premiazko arrazoiak daudenean edo erreklamazio posibleak egin edo defendatzea beharrezkoa denean. Honez gain, interesdunek datuak transferitzea eskatu ahal diote Bidegiri emandako datuak

anulación de todas las que se hubieran devengado durante el periodo de incumplimiento y que aún no se hubieran aplicado.

**8. DURACIÓN Y RESOLUCIÓN DEL ACUERDO**

El presente acuerdo tendrá una duración indefinida. Se podrá dar por finalizada por alguno de los siguientes motivos;

- Incumplimiento por parte de la entidad interesada.
- Por solicitud expresa realizada por la entidad interesada. Para ello deberá remitir un escrito informando qué vehículo quiere dar de baja, así como la fecha desde la cual no quiere que se le aplique la reducción de tarifa.

**9. FACTURACIÓN**

La entidad interesada presta su consentimiento expreso para que BIDEGI SA ponga a su disposición, a través de su página web www.bidegi.eus, las facturas correspondientes al ABONO realizado a su cuenta bancaria en concepto de "reducción autobuses y autocares"

**10. MODIFICACIÓN DE CONDICIONES**

BIDEGI SA podrá modificar las presentes condiciones previstas en este acuerdo, mediante su comunicación a la entidad interesada un mes antes de su aplicación. Quedan excluidas de esta comunicación las modificaciones relativas al plan de reducciones y descuentos, así como a los criterios para su aplicación.

**11. PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES**

Contenido informativo: Sus datos personales son tratados por BIDEGI en calidad de responsable del cálculo de la reducción de tarifa para autobuses y autocares en las carreteras sometidas a cobro objeto de la presente reducción del Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como para gestionar la información personal obtenida a partir del uso del dispositivo vinculado a esta reducción y elaborar perfiles de uso del dispositivo y envío de comunicaciones relativas a la gestión, modificación o cambios relativos a los servicios vinculados a este servicio. Asimismo, los datos que sean requeridos para la prestación de servicios de la administración electrónica de que dispone BIDEGI serán utilizados para gestionar este tratamiento. Responsable del tratamiento de datos personales: BIDEGI Gipuzkoako Azpiegituren Agentzia-Agencia Gipuzcoana de Infraestructuras, con CIF A20783023 y domicilio en Asti Auzoa, 631A 20800 - (Zarautz) – Gipuzkoa, trata los datos personales solicitados, y los que se desarrollen como consecuencia del servicio. Legitimación para el uso de los datos: La legitimación o base legal para el tratamiento de sus datos es el acuerdo formalizado por la persona solicitante de la reducción y el interés público materializado en la Norma Foral 17/1990, de 26 de diciembre, y Decreto Foral del Consejo de Diputados 43/2002, de 16 de julio, sobre constitución de BIDEGI, y ello conforme a lo establecido en los artículos 6.1.b) y 6.1.e) del Reglamento Europeo de Protección de Datos, así como el consentimiento que se solicita en dicho acuerdo para la realización de perfiles de utilización del dispositivo sujeto a reducción, conforme a lo dispuesto en el artículo 6.1.a) del Reglamento Europeo de Protección de Datos. La base legal para el tratamiento de los datos relativo a los servicios de administración electrónica es el cumplimiento de una obligación legal materializado en la Norma Foral 17/1990, de 26 de diciembre, y Decreto Foral del Consejo de Diputados 43/2002, de 16 de julio, sobre constitución de BIDEGI en relación con la Ley 39/2015 de 1 de octubre, del procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, conforme a lo establecido en el artículo 6.1.c) del Reglamento Europeo de Protección de Datos. La base jurídica para el envío de Información relativa a la reducción, se efectúa conforme a lo dispuesto en el artículo 7 de la Ley 19/2013, de Transparencia, Acceso a la Información Pública y Buen Gobierno y artículo 6.1.c) del Reglamento General Europeo de Protección de Datos. Comunicación de datos: BIDEGI podrá comunicar los datos a las entidades públicas INTERBIAK S.A., ARABAKO BIDEAK-VIAS DE ALAVA S.A. que gestionan autopistas de alta capacidad en sus respectivos territorios, con la finalidad de atender reclamaciones. También efectuará comunicaciones de datos personales en aquellos supuestos en que una norma lo exija, así como para dar soporte al servicio a través de proveedores externos. La gestión de los datos personales no supone la realización de transferencias internacionales de dichos datos. Conservación de los datos: Los datos personales se conservarán durante la prestación del servicio, tras lo cual pasarán a bloqueo con acceso restringido de personal autorizado, permaneciendo en esta situación durante los períodos de prescripción o extinción de las acciones que pudieran derivarse por motivo de la prestación del servicio o las exigidas por la legislación tributaria aplicable. Los datos necesarios para la realización de estudios con fines estadísticos y aquellos otros que redunden en la calidad del servicio para las personas usuarias se realizarán anonimizando la información personal obtenida. Derechos vinculados al tratamiento de sus datos personales: La persona tiene derecho a obtener confirmación sobre si BIDEGI está tratando datos personales que les conciernan, o no. Así, las personas interesadas tienen derecho a acceder a sus datos personales, así como a solicitar la rectificación de los datos inexactos o, en su caso, solicitar su supresión cuando, entre otros motivos, los datos ya no sean necesarios para los fines que fueron recogidos. En determinadas circunstancias, las personas interesadas podrán solicitar la limitación del tratamiento de sus

formatu egituratuan lortzeko, erabilpen komun eta irakurketa mekanikoarekin, euren kabuz deskargatzeko edo Bidegik beste entitate bati transmititzeko. Gainera, pertsonak bere adostasuna kentzeko eskubidea dauka, baina honek ez dio aldez aurretik emandako adostasunean oinarritutako tratamenduaren zilegitasunari kalterik egingo. Interesdunak bere eskubideak dbo@bidegi.eus helbidera e-mail bat bidaliz egikaritu ahalko ditu. Bidegiren webguneko pribatutasun atarian inprimaki bat eskuragarri dago. Datuak Babesteko Bulego eskudunaren aurrean erreklamazio bat aurkez daiteke, bereziki eskubideak asetzea lortu ez bada. Segurtasuna: Datuak modu konfidentzialean tratatuko dira, egokiak diren segurtasun-neurri tekniko eta antolatzaileen menpe, aldatzea, galtzea eta baimenik gabeko tratamendua edo sarbidea saihesteko. Datuak Babesteko Ordezkariari buruzko informazioa: Datuak Babesteko Europako Erregelamendu Orokorra betez, BIDEGIK Datuak Babesteko Ordezkari bat du. Pertsona hau, erakundeak informazio pertsonalaren kudeaketan pertsonak errespetuz tratatzen dituela eta datuak babesteko araudia errespetatzen dela ziurtatzeko arduraduna izango da. Ordezkari honekin kontaktatzeko modua dbo@bidegi.eus helbidearen bitartez izango da. Baimena: Akordioa online onartuta edo dokumentu honetan sinatuta, sinatzaileak berariaz baimentzen du bere datu pertsonalak erabiltzea adierazi diren helburuetarako.

datos, en cuyo caso únicamente los conservaremos para el ejercicio o la defensa de reclamaciones, así como, y por motivos relacionados con su situación particular, las personas interesadas podrán oponerse al tratamiento de sus datos. BIDEGI dejará de tratar los datos, salvo por motivos legítimos imperiosos, o el ejercicio o la defensa de posibles reclamaciones. Asimismo, las personas interesadas podrán solicitar la portabilidad de los datos para obtener los datos que han proporcionado a BIDEGI en un formato estructurado, de uso común y de lectura mecánica, para ser descargados por sí mismos o transmitidos de BIDEGI a otra entidad. Asimismo, la persona tiene derecho a retirar su consentimiento, retirada que no afectará a la licitud del tratamiento basada en el consentimiento previo a aquélla. La persona interesada puede ejercitar estos derechos dirigiendo un correo electrónico a la dirección dbo@bidegi.eus. Dispone de un formulario en el portal de privacidad del sitio web de BIDEGI. Puede presentar una reclamación ante la Agencia de Protección de Datos, especialmente cuando no haya obtenido satisfacción en el ejercicio de sus derechos. Seguridad. Los datos serán tratados de forma confidencial y bajo el sometimiento a medidas técnicas y organizativas de seguridad adecuada para evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado. Información sobre el Delegado de Protección de Datos. En cumplimiento del Reglamento General Europeo de Protección de Datos BIDEGI dispone de un Delegado de Protección de Datos como persona encargada de velar por el respeto a las personas en la gestión de su información personal en la organización y por el cumplimiento de la normativa de protección de datos pudiendo contactar con esta figura a través del canal dbo@bidegi.eus. Autorización. Con la aceptación on-line del acuerdo o con la firma en este documento, la persona firmante autoriza expresamente el uso de sus datos personales para las finalidades que han sido indicadas.

### 14. JAKINARAZPENAK

Akordio honetan jasotakoaren inguruan eta berau egikaritzeko egin beharreko jakinarazpenak idatziz egingo dira, salbu eta posible bada haien xedea telefonoz edo BIDEGI SAren webgunearen bidez ebaztea. Ondorio horietarako, lehenetsitzat joko dira BIDEGI SArentzat BAZaren helbidea (Aritzeta, GI-20 – 14,800 KP – 20170 Usurbil-Gipuzkoa) eta erakunde interesdunarentzat helbide elektronikoa.

### 13. NOTIFICACIONES

Las comunicaciones que hayan de realizarse con motivo de lo previsto en el presente acuerdo y en ejecución de este, se efectuarán por escrito salvo que su objeto sea posible telefónicamente o mediante la página web de BIDEGI SA. A estos efectos se tendrán por designados por defecto, para BIDEGI SA el domicilio del SAC (Aritzeta, Carretera GI-20, Pk. 14,800 (20.170) Usurbil-Gipuzkoa) y para la entidad interesada, el correo electrónico.

### 15. APLIKATU BEHAR DEN LEGERIA

Akordio hau Espainiako legeriak eta jurisdikzioak arautuko dute. Parte hartzen duten alderdiek, orrialde honetan sinadura bakar bat ezarrita edo BIDEGI SAren webgunean online akordioa onartuta, akordio hau osorik onartzen dute, bertan ezartzen diren termino, baldintza eta erantzukizunen pean

### 15. LEGISLACIÓN APLICABLE

El presente acuerdo se regirá por la legislación y jurisdicción españolas. Las partes intervinientes con una única firma estampada en la presente página o mediante la aceptación del acuerdo online en la página web de BIDEGI SA, prestan su conformidad y aprobación a la totalidad del presente acuerdo, en los términos, condiciones y responsabilidades que se establecen en el mismo.


**BIDEGIko Bezeoaren Arreta Zerbitzua**
**Servicio de Atención al Cliente de BIDEGI**
Aritzeta Zerbitzugunea
GI-20 errepidea, 14,800 KP
20170 - Usurbil (Gipuzkoa)
info@bidegi.eus
943 105 106